| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2017KO URRIAREN 3AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 3 DE OCTUBRE DE 2017.** |
|---|---|
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi And.
Álvaro González Pérez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urriaren hiruan, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a tres de octubre de dos mil diecisiete, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legeak eskatzen duen kide-kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**406.- 2017KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA**.

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2017ko irailaren 26ko bilerakoa, hain zuzen.

**406.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 26 DE SEPTIEMBRE DE 2017.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 26 de septiembre de 2017.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**407.- GETXOKO ELKARTEEI, MERKATARIEI ETA OSTALARIEI ESKAINTZEAGATIK ITZULTZEKO ETA MAKETATZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEA HASI, BALDINTZA-AGIRIAK ONETSI ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: GETXOKO ELKARTE, MERKATARI ETA OSTALARIENTZAKO ITZULPEN ETA MAKETATZE ZERBITZUAK publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzeko arauzko izapideak abiaraztea baimenduko da. Lizitazioaren aurrekontua 20.000 eurokoa (HOGEI MILA eurokoa) izango da, % 21eko BEZa barne. Lizitazioaren ondorioetarako, kontratuak 3 lote izango ditu:

1. lotea: EUSKARAZKO ITZULPEN ZERBITZUA.

Lote horretarako aurrekontua 14.000 €

**407.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DE LOS SERVICIOS DE TRADUCCIÓN Y MAQUETACIÓN OFRECIDOS A ASOCIACIONES, COMERCIANTES Y HOSTELEROS DE GETXO, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante procedimiento negociado sin publicidad, los SERVICIOS DE TRADUCCIÓN Y MAQUETACIÓN OFRECIDOS A ASOCIACIONES, COMERCIANTES Y HOSTELEROS DE GETXO, cuyo presupuesto de licitación, IVA del 21% incluido, será de 20.000€ (VEINTE MIL euros), IVA del 21% incluido. A efectos de la licitación, el contrato se divide en 3 lotes:

Lote 1: SERVICIO DE TRADUCCIÓN A EUSKERA.

El presupuesto máximo de licitación

(HAMALAU MILA euro) izango da, gehienez ere, % 21eko BEZa barne.

para este lote será de 14.000€ (CATORCE MIL euros céntimos), IVA del 21% incluido.

2. lotea: BESTE HIZKUNTZA BATZUETAKO ITZULPEN ZERBITZUA.

Lote 2: SERVICIO DE TRADUCCIÓN A OTROS IDIOMAS.

Lote horretarako aurrekontua 4.000 € (LAU MILA euro) izango da, gehienez ere, % 21eko BEZa barne.

El presupuesto máximo de licitación para este lote será de 4.000€ (CUATRO MIL euros), IVA del 21% incluido.

3. lotea: MAKETATZE, INPRIMATZE ETA PLASTIKOTZE ZERBITZUA.

Lote 3: SERVICIO DE MAQUETACIÓN, IMPRESIÓN Y PLASTIFICADO.

Lote horretarako aurrekontua 2.000 € (BI MILA euro) izango da, gehienez ere, % 21eko BEZa barne.

El presupuesto máximo de licitación para este lote será de 2.000€ (DOS MIL euros), IVA del 21% incluido.

Kontratua URTEBETEKO (1) epean egikarituko da, sinatzen denetik zenbatzen hasita. Kontratua BESTE URTE BETEZ (1) luzatu ahalko da.

El plazo de ejecución del contrato será de UN (1) AÑO, a contar desde la fecha de la firma del mismo. El contrato será prorrogable por OTRO (1) AÑO MÁS.

BIGARRENA: Administrazioko kontratazioa agindu behar duten administrazio-baldintza berezien eta teknikoen pleguak onestea.

SEGUNDO.- Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

HIRUGARRENA.- Beharrezko gastua onartzea, 20.000 € (HOGEI MILA euro), aipatutako zerbitzuaren kontrataziotik sortutako betebeharrei aurre egiteko.

TERCERO.- Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 20.000€ (VEINTE MIL euros).

**408.- ERREKAGANEKO PABILOIEN INGURATZAILEA ERAIKITZEKO OBRAKO PROIEKTUA ETA ZUZENDARITZA ESLEITZEKO ESPEDIENTEA HASI, BALDINTZA-AGIRIAK ONETSI ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.**

**408.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DE LA REDACCIÓN DEL PROYECTO Y DIRECCIÓN DE OBRA PARA LA ENVOLVENTE DE LOS PABELLONES DE ERREKAGANE, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: ERREKAGANEKO PABILIOIEN BILGARRIRAKO PROIEKTUA IDAZTEKO ETA OBRA ZUZENTZEKO ZERBITZUA prozedura irekiaren bidez adjudikatzeko arauzko izapideak hastea baimentzea.

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, de SERVICIO DE REDACCIÓN DE PROYECTO Y DIRECCIÓN DE OBRA PARA LA ENVOLVENTE DE LOS PABELLONES DE ERREKAGANE.

Kontratua betetzeko epea BTParen 18. idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorri behar da. Bertan, kontratuaren prestazio bakoitzeko egikaritze epeak sartzen dira, haren Obra Zuzendaritza barne.

El plazo de ejecución del contrato se acomodará a lo dispuesto en el apartado 18 del PCT, en el que se prevén plazos de ejecución de cada prestación del contrato, incluída la Dirección de obra que forma parte del mismo.

Kontratuaren gehieneko prezioa 95.000 (laurogeita hamabost mila) € izango da, % 21eko BEZa barne.

El precio del contrato será como máximo de 95.000 (noventa y cinco mil) euros, IVA del 21% incluido.

BIGARRENA: Administrazio kontratazioa arautzeko Administrazio Baldintza Berezien eta Teknikoen Pleguak onartzea.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

HIRUGARRENA: Zerbitzu hori, daukan izaeragatik segidako traktukoa dena, kontratatzetik eratortzen diren betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, gehienez ere 95.000 eurokoa.

TERCERO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, que por su naturaleza ha de considerarse de tracto sucesivo, por importe máximo de 95.000 euros.

LAUGARRENA: Kontratu-espediente honen premia deklaratzea, SPKLTBEaren 112. artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen hirugarren aurrekarian azaldutako arrazoiak direla bide.

CUARTO: Declarar la urgencia del presente expediente contractual, a los efectos de su tramitación conforme a lo dispuesto en el artículo 112 del TRLCSP, sobre la base de las razones referidas en el antecedente tercero de esta resolución.

**409.- "ASOCIACIÓN DE VECINOS DEL PUERTO VIEJO DE ALGORTA PORTUZARRA" ELKARTEAREN ALDEKO IZENDUN DIRU-LAGUNTZA EMAN ETA ARAUTZEN DUEN HITZARMENA ONARTZEA.**

Kultura, Euskara eta Gazteria Arloko zinegotziak proposatuta, erabaki hau hartu da:

1.- 70.000 euroko izendun diru-laguntza ematea ¨Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta Portuzarra¨ elkarteari, IFZ G95698700, elkartearen funtzionamendu gastuak, eta Portu Zaharreko eraikinek dauzkaten termitak kentzeko lanen mantenimendua eta eraikin batzuen fatxaden saneamendu eta pintura lanak finantzatzeko.

2.- ¨Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta Portuzarra¨ elkartearen aldeko izendun diru-laguntza arautzen duen hitzarmena onartzea, bere arrazoiko espedientearen barruan dagoena, eta Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

3.- 70.000euroko gastua baimentzea eta xedatzea izendun diru-laguntzatan Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta Portuzarra¨ elkarteari (IFZ G95698700) emateko.

4.- 63.000 euro ordaintzeko beharra onartzea Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta Portuzarra¨ elkarteari (IFZ G95698700) %90ko lehen ordainketari dagokiona.

**409.- CONCESIÓN Y APROBACIÓN DEL CONVENIO REGULADOR DE LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA A FAVOR DE LA ASOCIACIÓN DE VECINOS DEL PUERTO VIEJO DE ALGORTA "PORTUZARRA"**

A propuesta del concejal del Área de Cultura, Euskera y Juventud, se acordó:

1.- Conceder subvención nominativa a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", con CIF G95698700, por importe de 70.000 euros para sufragar los gastos derivados del funcionamiento de la Entidad, así como de la ejecución del mantenimiento del tratamiento de eliminación de las termitas que afectan a los edificios del Puerto Viejo y de las obras de saneado y pintura de las fachadas en determinados edificios.

2.- Aprobar el Convenio regulador de la subvención nominativa a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", que obra en el expediente de su razón, y facultar al Alcalde para su firma.

3.- Autorizar y disponer el gasto por importe de 70.000 euros en concepto de subvención nominativa a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", con CIF G95698700.

4.- Reconocer la obligación de pago por importe de 63.000 euros a favor de la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra", con CIF G95698700 correspondiente al primer

pago del 90%.

Ordainketa onuradunaren izeneko kontu honetan egingo da: BBK ES39 2095 0221 3091 1225 2055.

El ingreso se realizará en la cuenta de la entidad beneficiaria: BBK ES39 2095 0221 3091 1225 2055.

5.- Akordio hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, eta "Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta Portuzarra" elkarteari eta Udal kontuhartzailetzari jakinaraziko zaie.

5.-Publicar el presente Acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, notificar a la Asociación de Vecinos del Puerto Viejo de Algorta "Portuzarra" y comunicar a la Intervención Municipal.

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK**

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES**

**410.- GIZARTE-LARRIALDIETAKO LAGUNTZAK EMATEKO 8. SORTA ALDATZEA.**

**410.- MODIFICACIÓN DE LA REMESA DE CONCESIÓN DE AES Nº 8.**

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta de la Concejala Responsable del Área de Servicios Sociales, se acordó:

LEHENENGOA: G.M.F.M. k Gizarte Larrialdiko Laguntzari UKO EGITEA ONESTEA; horren zenbatekoa 878,62 € da eta kontzeptua beste era batzuetako oinarrizko beharrizanak (8. bidalketa) da.

PRIMERO: ACEPTAR LA RENUNCIA de G.M.F.M. una Ayuda de emergencia social por importe de 878,62 € por el concepto de otros necesidades primarias (8º remesa).

BIGARRENA: G.M.F.M. k uko egin ondoren, 3367/2017 Dekretuaren xedatu eta aitortutako zenbatekoa ALDATZEA. Munta zuzena 48.035,89 € izango da.

SEGUNDO: MODIFICAR el importe, dispuesto y reconocido por el D. 3367/2017 que tras la renuncia de G.M.F.M., será de 48.035,89€

HIRUGARRENA: Aurreko horren guztiaren ondorioz 8 zenbakiko GLLren emakidaren bidalketa ALDARAZTEA. Horrek izan behar duen zenbatekoa 48.035,89 € da.

TERCERO: Como consecuencia de lo anterior, MODIFICAR la remesa de concesión de AES número 8º la cual debe ascender a un un importe total de 48.035,89 €.

Aurreikusitako azalpenetan emandako diruaren gastuaren justifikazioaren

El gasto en los conceptos previstos de la cantidad concedida deberá ser

azalpena, ebazpena jakinarazten den egunetik hilabetekoa izango da. Gastuen fakturak edota justifikazioak Gizarte Zerbitzuetako arloan aurkeztu behar dira eta jaulkitzailea den pertsona fisiko edo/eta juridikoaren oinarrizko datu hauek izan beharko ditu erantsita:

1. Identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo/eta nortasun agiri nazionala (NAN).
2. Gastu-kontzeptuen xehetasuna.
3. Gastuei dagokien zenbatekoa (BEZ barne).

Era berean, fakturek edo/eta justifikazioek jaulkitzaile fisiko edo juridikoaren ordainagiriaren zigilua eta sinadura izan beharko dituzte.

Udalak emandako diru-laguntza, bai zati batean bai osotasunean, itzultzeko eskatuko du eta dagokion administrazio espedienteari emango dio hasiera kasu hauetan:

1. Arestian aipatutako fakturak edo/eta justifikazioak adierazitako epearen barruan aurkezten ez badira.
2. Justifikazioak laguntzaren osotasuna hartzen ez badu.
3. Laguntza behar bezala erabili ez bada.

LAUGARRENA: Udaleko Kontuhartzaile eta Diruzaintza Sailetara helaraztea dagozkion ondorioak sor ditzan.

justificado en el plazo de 1 mes a partir de la notificacion de la resolución. Las facturas o justificación de los gastos habrán de presentarse en el Área de Servicios Sociales y deberán incorporar los datos básicos de la persona física o jurídica emisora, añadiendo los siguientes datos básicos:

1. Número de identificación fiscal (NIF) o el número de documento nacional de identidad (DNI),
2. Detalle de los conceptos de gasto
3. Cuantía correspondiente a los mismos (IVA incluido)

Igualmente, las facturas o justificantes deberán contener sello y firma del recibí por parte de la persona física o jurídica emisora.

El Ayuntamiento procederá a la acción de reintegro, parcial o total de la ayuda concedida, iniciando el procedimiento administrativo correspondiente cuando:

1. Las facturas o justificaciones señaladas anteriormente no se presentaran en el plazo indicado.
2. La justificación no abarcara la totalidad de la ayuda.
3. La ayuda hubiera sido utilizada indebidamente.

CUARTO: Dar traslado a los efectos oportunos al interesado y a los Departamentos de Intervención y Recaudación Municipal.

**411.- GETXOKO HERRITARRENTZAT ALDIZKAKOEZ BESTE GIZARTE-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI-ARAUAK ALDATZEA, ARRISKU EDO GIZARTE-BAZTERKETAKO**

**411.- MODIFICACIÓN DE LAS BASES REGULADORAS DE LAS AYUDAS NO PRERIÓDICAS DIRECTAS PARA VECINOS Y VECINAS DE GETXO CON OBJETO DE PREVENIR, EVITAR O PALIAR**

**EGOERAK AURREIKUSTEKO, SAIHESTEKO EDO LEUNTZEKO ASMOZ.**

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

1.- ALDATZEA; horren bidez, Getxoko herritarren aldekoak diren eta aldirokoak ez diren udal laguntza zuzenen oinarri arautzaileak onetsi ziren 2017. urterako, gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko helburuarekin, finantzaketai buruzkoa 8. artikulua. Oinarri arautzaileak eranskin gisa erantsi zaizkio proposamen honi.

2.- 2017ko otsailaren 7ko 33. Erabakiaren 2. puntua ALDATZEA; horren bidez, Getxoko herritarren aldekoak diren eta aldirokoak ez diren udal laguntza zuzenen oinarri arautzaileak onetsi ziren 2017. urterako, gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko helburuarekin baimendutako zenbatekoa 205.000 euroraino haunditUz. Horregatik, helburu horretarako gastua, 55.000,00 euro BAIMENTZEA.

**SITUACIONES DE RIESGO O EXCLUSIÓN SOCIAL.**

A propuesta de la Concejala Responsable del Área de Servicios Sociales, se acordó:

1.- MODIFICAR el Art. 8 de las bases reguladoras de las ayudas no periódicas municipales directas a favor de vecinos y vecinas de Getxo con el objeto de prevenir, evitar o paliar situaciones de riesgo o de exclusion social para el año 2017, relativo a la financiación de estas ayudas para el año 2017, incluyendose como anexo a esta propuesta las bases reguladoras modificadas.

2.- MODIFICAR el punto 2º del Acuerdo nº 33 de fecha 7 de febrero del 2017 por el que se aprobaron las bases reguladoras de las ayudas no periódicas municipales directas a favor de vecinos y vecinas de Getxo con el objeto de prevenir, evitar o paliar situaciones de riesgo o de exclusion social para el año 2017, ampliando el importe autorizado hasta 205.000 euros. En consecuencia AUTORIZAR el gasto por dicho exceso de 55.000,00 euros.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, ETA INGURUMENA**

**412.- 11.1.-NEGURI EGIKARITZE-UNITATEA URBANIZATZEKO OBRAK ONARTZEKO AKTAKO BERRI EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS, Y MEDIO AMBIENTE**

**412.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACTA DE RECEPCIÓN DE LAS OBRAS DE URBANIZACIÓN DE LA U.E. 11.1-"NEGURI".**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.- 11.1-"Neguri" egikaritze unitateko urbanizazio obren harrera aktaren jakitun geratzea. Akta horretan, eranskin bat sartzen da, egiteke dauden obren xehetasunekin.

PRIMERO.- Quedar enterados del contenido del Acta de recepción de las obras de urbanización de la Unidad de Ejecución 11.1-"Neguri", que incluye un anexo con el detalle de las obras pendientes de realización.

Ondorioz, obra horiek jasotzat joko dira, salbu eta eranskin horren edukiari dagokionean, jarritako abalak atxikitzera behartzen duena.

Consecuentemente, dar por recepcionadas las citadas obras, salvo en lo que se refiere al contenido del mencionado anexo, que obliga a la retención de los avales depositados.

Urtebeteko berme-epea ezartzen da.

El plazo de garantía queda establecido en un año.

BIGARRENA.- Erabaki hauen berri emango zaio Ondare Unitateari, Ondasunen Udal Inbentarioan agerraraz dezan.

SEGUNDO.- Dar traslado de estos acuerdos a la Unidad de Patrimonio, para su constancia a efectos del Inventario Municipal de Bienes.

**413.- 11.1.-NEGURI EGIKARITZE-UNITATEKO 1., 7. ETA 8. PARTZELAK URBANIZATZEKO OBRA EGIKARITZEA BAIMENDU ETA GETXOKO UDALARI DAGOKION KUOTAGATIK GASTUA EGITEA XEDATZEA.**

**413.- AUTORIZACIÓN Y DISPOSICIÓN DEL GASTO DE LA CUOTA CORRESPONDIENTE AL AYUNTAMIENTO DE GETXO EN LA URBANIZACIÓN DE LAS PARCELAS RESULTANTES Nº 1, 7 Y 8 DE LA U.E. 11.1-"NEGURI"**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.- Ondoko lauki honetan zehazten diren gastuak baimendu eta xedatzea, Getxoko Udalak 11.1-"Neguri" egikaritze-unitateko 1, 7 eta 8. lur-zati berrien urbanizazioan ordaindu behar duen kuota-zatiaren ondorioz. Hori guztia 1520 partidaren kontura.

PRIMERO.- Autorizar y disponer los gastos que se detallan en el cuadro que viene a continuación, consecuencia de la cuota parte de la que ha de responder el Ayuntamiento de Getxo en la urbanización de las parcelas resultantes nº 1, 7 y 8 de la Unidad de Ejecución 11.1-"Neguri". Todo ello con cargo a la partida 1520.

| | | |
|---|---|---|
| 11.1.-"Neguri" egikaritze-unitaterako | IFK / CIF | ZENBATEKOA: 76.627,51 euro (BEZ |

| | | |
|---|---|---|
| birpartzelazio-proiektuaren ondorioz sortutako 7. eta 8. lur-zatietako jabeen erkidegoa<br><br>Comunidad de Propietarios de las parcelas nº 7 y 8 resultantes del Proyecto de Reparcelación para la Unidad de Ejecución 11.1-"Neguri" | H95859096 | barne), honela banakatuta:<br><br>.- Urbanizazio obrak (KEP+BEZ): 65.827,85 euro.<br><br>.- Abokatuaren, arkitektoaren eta arkitekto teknikoaren ordainsariak (BEZa barne): 8.199,74 euro.<br><br>.- Bestelako gastuak, tasak, EIOZ, etab: 2.599,92 euro.<br><br>IMPORTE: 76.627,51 euros (IVA incluido), que se desglosa de la siguiente manera:<br><br>.- Obras de urbanización (PEC+IVA): 65.827,85 euros<br>.- Honorarios abogado, arquitecto y arquitecto técnico (IVA incluido): 8.199,74 euros.<br>.- Otros gastos, tasas, ICIO, etc: 2.599,92 euros. |

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri emango zaio Udalaren Kontu Hartzailetzari.

SEGUNDO.- Dar traslado de esta resolución a la Intervención Municipal.

**414.- 31.1. SARRIKOBASO EGIKARITZE-UNITATEA BIRZATITZEKO PROIEKTUAREN BEHIN-BEHINGO LIKIDAZIO-KONTUA ALDATUTA BEHIN BETIKO ONESTEA.**

**414.- APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA MODIFICACIÓN DE LA CUENTA DE LIQUIDACIÓN PROVISIONAL DEL PROYECTO DE REPARCELACIÓN DE LA U.E. 31.1-"SARRIKOBASO".**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.- Behin betiko onestea 31.1-"Sarrikobaso" egikaritze unitaterako izapidetu den birpartzelazio proiektuaren behin-behineko likidazio kontuaren aldaketa.

PRIMERO.- Aprobar, con carácter definitivo, la modificación de la Cuenta de Liquidación Provisional del Proyecto de Reparcelación tramitado para la Unidad de Ejecución 31.1-"Sarrikobaso".

Aldaketa horrek eragina dauka birpartzelazio proiektuaren testu bat

Dicha modificación afecta al Texto Refundido del Proyecto de

eginean, Tokiko Gobernu Batzarraren 62/2012 eta 203/2012 zenbakidun erabakien bidez onetsia, txertatzen den banaketa eremuari dagokionez egikaritze unitatearen defizitaren kuantifikazioarekin zerikusia duen guztian.

Reparcelación, aprobado por sendos acuerdos de la Junta de Gobierno Local, nº 62/2012 y 203/2012, en lo que tiene que ver con la cuantificación del déficit de la Unidad de Ejecución respecto del Área de Reparto en la que se inserta.

Horrela, defizita 2.716.092,41 eurotan ezarriko da eta, batetik, urbanizazio-zama gutxituz (490.753,83 euro) hornituko da, eta bestetik, eskudirutan ordainduz (2.225.338,58 euro). Hori guztia erantsitako koadroan garatzen den banaketarekin bat etorriz.

De este modo, el déficit queda establecido en 2.716.092,41 euros y será atendido, en una parte, con minoración de la carga de urbanización (490.753,83 euros), y en la restante, mediante su abono en metálico (2.225.338,58 euros). Todo ello conforme a la distribución que se desarrolla en el cuadro anexo.

BIGARRENA.- Berariaz agerraraziko da aldaketa horrek 3549/2012 zenbakidun ebazpena (3881/2012 zenbakidun ebazpenarekin osatua) egokitzea dakarrela, administrazio jarduleak egikaritze unitatearen defizita ordaintzeko ezarritako zenbatekoak bere gain hartzeari dagokionez, termino hauetan finkatuta daudenak:

SEGUNDO.- Dejar constancia expresa de que esta modificación conlleva la necesaria adaptación de la resolución nº 3549/2012, completada por la nº 3881/2012, en lo que tiene que ver con la asunción, como Administración actuante, de las cuantías fijadas para atender el déficit de la unidad de ejecución, establecidas ahora en los siguientes términos:

.- Ordainsari teknikoak (Aurrekontua, BEZarekin=243.939,40 euro).

.- Honorarios técnicos (Presupuesto con IVA=243.939,40 euros).

.- Kalte-ordainak, eraitsi beharreko eraikin eta eraikuntzengatik, eta suntsitu beharreko landaketa, obra eta instalazioengatik: 246.814,43 euro.

.- Indemnizaciones por edificios y construcciones a derribar y plantaciones, obras e instalaciones a destruir: 246.814,43 euros.

.- Eskudirutan ordaindutakoa: 2.225.338,58 euro.

.- Abono en metálico: 2.225.338,58 euros.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta gehien saltzen den egunkarietako batean argitaratuko da; bestalde, interesdunei zuzenean emango zaie horren berri.

TERCERO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y en uno de los diarios de mayor difusión, con notificación personal a los interesados.

LAUGARRENA.- 31.1-"Sarrikobaso"

CUARTO.- Instar de la Junta de

egikaritze unitateko itun batzarrari eskatuko zaio bidegabe ordaindutako dirua berriro ordaintzeko bidezkoak diren jarduketak egin ditzala.

Concertación de la Unidad de Ejecución 31.1-"Sarrikobaso" las actuaciones procedentes para el reingreso de las cuantías indebidamente pagadas.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri emango zaie udalaren Ekonomia Arloari eta Ondare Unitateari, kontuan izan dezaten.

QUINTO.- Dar cuenta de este acuerdo al Área Económica Municipal, así como a la Unidad de Patrimonio, para su debida consideración.

ERANSKINA/ANEXO

| **Finka**<br><br>**Finca** | **Jabea**<br><br>**Propietario** | **EUaren defizita**<br><br>**Déficit de la UE** | **Urbaniz-zamaren minorazioa**<br><br>**Minoración de la carga urbanización** | **Dirutan ordaintzeko**<br><br>**Para su abono en metálico** | **Ordainduta**<br><br>**Ya abonado** | **Behar baino gehiago ordainduta**<br><br>**Abonado en exceso** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.a | JG Zalbidea | 43.129,750 | 9.941,200 | 33.188,550 | 34.439,130 | - 1.250,580 |
| 1.a | JI Zaldidea | 43.129,750 | 9.941,200 | 33.188,550 | 34.439,130 | - 1.250,580 |
| 1.a | JM Zalbidea | 43.129,750 | 9.941,200 | 33.188,550 | 34.439,130 | - 1.250,580 |
| 1.b | Y Serrano | 71.653,490 | 16.516,320 | 55.137,170 | 57.216,030 | - 2.078,860 |
| 1.b | JM Serrano | 71.653,490 | 16.516,320 | 55.137,170 | 57.216,030 | - 2.078,860 |
| 1.b | MJ Serrano | 71.653,490 | 16.516,320 | 55.137,170 | 57.216,030 | - 2.078,860 |
| 1.c | JI Zalbidea | 25.255,970 | 5.821,320 | 19.434,650 | 20.166,960 | - 732,310 |
| 2 | JL Elordui | 389.135,880 | | 389.135,880 | 488.588,640 | - 99.452,760 |
| 3 | E Arrieta | | | | | |
| 3 | K Arrieta | 207.508,640 | 47.830,950 | 159.677,690 | 165.698,580 | - 6.020,890 |
| 3 | G Arrieta | 207.508,640 | 47.830,950 | 159.677,690 | 165.698,580 | - 6.020,890 |
| 3 | A Arrieta | 207.508,640 | 47.830,950 | 159.677,690 | 165.698,590 | - 6.020,900 |
| 3 | M Arrieta | 207.508,640 | 47.830,960 | 159.677,680 | 165.698,580 | - 6.020,900 |
| 4 | JL Aldecoa | 375.809,420 | 86.624,920 | 289.184,500 | 300.089,660 | - 10.905,160 |
| 4 | R Aldecoa | 375.809,420 | 86.624,920 | 289.184,500 | 300.089,660 | - 10.905,160 |
| 4 | M Sancho | 62.631,260 | | 62.631,260 | 78.638,670 | - 16.007,410 |
| 4 | S Sancho | 62.631,260 | | 62.631,260 | 78.638,670 | - 16.007,410 |
| 4 | L Sancho | 31.319,040 | | 31.319,040 | 39.322,760 | - 8.003,720 |
| 4 | J Sancho | 31.319,040 | | 31.319,040 | 39.322,760 | - 8.003,720 |
| 5 | MA Arancibia | 7.984,410 | 1.840,330 | 6.144,080 | 6.375,740 | - 231,660 |
| 5 | JM Arancibia | 7.984,410 | 1.840,330 | 6.144,080 | 6.375,740 | - 231,660 |
| 5 | MT Arancibia | 7.984,410 | 1.840,330 | 6.144,080 | 6.375,740 | - 231,660 |
| 5 | MI Arancibia | 7.984,410 | 1.840,330 | 6.144,080 | 6.375,740 | - 231,660 |
| 5 | LM Arancibia | 7.984,410 | 1.840,330 | 6.144,080 | 6.375,740 | - 231,660 |
| 5 | MM Lozano | 9.982,220 | 2.301,140 | 7.681,080 | 7.971,140 | - 290,060 |
| 5 | MD Gonzalez | 9.982,220 | 2.301,140 | 7.681,080 | 7.971,140 | - 290,060 |
| 5 | MI Martin | 9.982,220 | 2.301,140 | 7.681,080 | 7.971,140 | - 290,060 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | CE Orbezua | 4.991,790 | 1.150,330 | 3.841,460 | 3.985,820 | - 144,360 |
| 5 | B Orbezua | 4.991,810 | 1.150,340 | 3.841,470 | 3.985,820 | - 144,350 |
| 5 | MR Ruiz | 19.965,810 | 4.601,800 | 15.364,010 | 15.942,780 | - 578,770 |
| 5 | MA basañez | 9.982,220 | 2.301,140 | 7.681,080 | 7.971,140 | - 290,060 |
| 5 | G Basañez | 9.982,220 | | 9.982,220 | 12.534,070 | - 2.551,850 |
| 6.4 | AYTO M Serrano | 31.411,900 | 7.240,580 | 24.171,320 | 25.083,290 | - 911,970 |
| 6.5 | AYTO E Serrano | 36.602,380 | 8.437,040 | 28.165,340 | 29.228,340 | - 1.063,000 |
| | **GUZTIRA TOTAL** | **2.716.092,410** | **490.753,830** | **2.225.338,580** | **2.437.140,970** | **-211.802,390** |

**415.- JUAN BAUTISTA URIBARRI KALEA LUZATZEKO PROIEKTUA ONESTEA, 16.1.-KONPORTE EGIKARITZE-UNITATEKO EREMUAREN BARRUKO LURSAILETAKO BATZUEI DOAKIEN PARTEZ.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.- Hasierako izaerarekin onetsiko da JUAN BAUTISTA URIBARRI KALEAREN LUZAPENAREN PROIEKTUA. Horrek, zati batean, 16.1-"Konporte" egikaritze unitatearen eremuko zenbait lurretan du eragina. Proiektua LKS Ingeniería, S. Coop.ek idatzi zuen eta egikaritze materialeko aurrekontua 136.603,35 eurokoa da, honela banatutua:

Eremu publikoa: 42.080,89 euro.
"Konporte" 16.1. egikaritze-unitatea: 94.522,46 euro.

Berariaz agerrarazten da onesten den proiektu hau, 16.1-"Konporte" egikaritze unitateari dagokionez, unitate horretako etorkizuneko urbanizazio proiektuaren barruan txertatu behar dela, eta berari egozten zaiola. Egikaritze-unitatearen barruan

**415.- APROBACIÓN INICIAL DEL PROYECTO DE PROLONGACIÓN DE LA CALLE JUAN BAUTISTA URIBARRI, QUE AFECTA, EN PARTE, A TERRENOS COMPRENDIDOS DENTRO DEL ÁMBITO DE LA U.E. 16.1-"KONPORTE"**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.- Aprobar, con carácter inicial, el PROYECTO DE PROLONGACIÓN DE LA CALLE JUAN BAUTISTA URIBARRI, que afecta, en parte, a terrenos comprendidos dentro del ámbito de la Unidad de Ejecución 16.1-"Konporte", redactado por LKS Ingeniería, S. Coop., con un Presupuesto de Ejecución Material de 136.603,35 euros, que se desdobla en:

Zona pública: 42.080,89 euros.
Unidad de Ejecución 16.1-"Konporte": 94.522,46 euros.

Se hace constar de forma expresa que este proyecto que se aprueba habrá de insertarse, en lo que tiene que ver con la Unidad de Ejecución 16.1-"Komporte", como parte integrante del futuro Proyecto de Urbanización de la citada unidad, a la que se imputa. Los terrenos

ukituko diren lursailak aprobetxamendu-sortzailetzat joko dira haren etorkizuneko garapenean.

afectados que forman parte de la citada Unidad de Ejecución computarán como generadores de aprovechamiento en el futuro desarrollo de la misma.

BIGARRENA.- Erabaki hau eta haren espedientea jendaurreko informazioko nahitaezko izapidearen pean jarriko dira, HOGEI EGUNEZ, alegazioak egiteko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta gehien zabaltzen diren egunkarietako batean iragarki bat sartuz eta interesdunei modu pertsonalean jakinaraziz.

SEGUNDO.- Someter este acuerdo, junto con su expediente, al preceptivo trámite de información pública, por término de VEINTE DÍAS, a efectos de alegaciones, mediante la inserción del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia y en uno de los diarios de mayor circulación y notificación personal a los interesados.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri emango zaie ukituta geratzen diren eta sektoreko eskumenak dituzten administrazioei, baleude.

TERCERO.- Dar traslado de este acuerdo a las Administraciones con competencias sectoriales que resulten afectadas, en su caso.

**416.- EMANDAKO OBRA-BAIMENAREN LUZAPENA ESKATUTA, BIDEBARRI KALEKO 1EKO ERAIKINEAN IGOGAILUA EZARTZEKO, ESKAILERAK ALDATU ETA ORDEZTEKO, ETA BI ARRAPALA ATARTEAN EZARTZEKO ONESTEA.**

**416.- PRÓRROGA PARA LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DE INSTALACIÓN DE UN ASCENSOR EN EL INMUEBLE SITO EN LA C/BIDEBARRI, 1, SUSTITUYENDO LA ESCALERA Y LA REALIZACIÓN DE DOS RAMPAS EN EL INTERIOR DEL PORTAL.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.- Javier de Zabala González jaunari, BIDEBARRI 1eko jabe erkidegoaren ordezkaritzan, HIRU (3) HILABETEKO luzapena emango zaio igogailu bat jartzeko obrak egiteko, dagoen eskailera kenduz eta beste bat jarriz, eta atariaren barruan bi arrapala jarriz, igogailuaren kotara heldu arte dauden eskailera-mailak gainditzeko, Algortako Bidebarri kaleko 1.an dagoen higiezinean. Obra horiek Tokiko Gobernu Batzarraren 292 zenbakidun

PRIMERA.- Conceder a D. Javier de Zabala González, en representación de la CCPP BIDEBARRI 1, una prórroga por espacio de TRES (3) MESES para la ejecución de las obras de instalación de un ascensor, sustituyendo la escalera existente por otra, y la realización de dos rampas en el interior del portal para salvar los peldaños existentes hasta llegar a la cota de ascensor en el inmueble sito en la calle Bidebarri nº 1, de Algorta, obras que fueron

Erabakiaren bidez baimendu ziren, 2015eko uztailaren 28ko osoko bilkuran hartua.

concedidas por Acuerdo nº 292 de la Junta de Gobierno Local, adoptado en sesión ordinaria celebrada el día 28 de julio de 2015.

BIGARRENA.- Obrak amaitzean, ikuskapen-bisita egokia eskatu beharko dute, eta, horretarako, honako hauek aurkeztu:

a) Obra-amaierako ziurtagiria eta likidazioa (igogailua barne), teknikari eskudunak sinatuta eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita.

b) Zaharberritutako eremuetako, igogailuko eta abarreko koloretako argazkiak.

c) Neurketa akustikoen justifikazioa, Zarata eta Dardaren Udal Ordenantzaren 7, 8, 9, 11, 12 eta 13 artikuluetan oinarrituta eginak.

d) Bizilagunek prestakuntza jaso izanaren ziurtagiria; prestakuntza horren barne egon beharko dira etxeko arriskuak, bereziki suteak, eta larrialdi egoeretan nola jardun baita ere.

e) Erkidegoaren adostasuna jasotzen duen agiri espezifikoa. Bertan berariaz jasota egon beharko da higiezineko etxebizitzetako titular guztiei jakinarazi zaiela pasabidearen edota eskaileraren zabalera murrizteak arrisku gehiago sortzen dituela, bai ebakuaziorako, bai larrialdi-taldeen esku-hartzerako.

SEGUNDA.- Al finalizar las obras deberán solicitar la correspondiente visita de inspección, acompañada de:

a) Certificado y liquidación final de obras (ascensor incluido), firmado por técnico competente y visado por el correspondiente colegio oficial.

b) Fotografías en color de las zonas reformadas, del ascensor, etc..

c) Justificación de mediciones acústicas realizadas en base a los Artºs. 7, 8, 9, 11, 12 y 13 de la Ordenanza Municipal sobre Ruidos y Vibraciones.

d) Acreditación de que los vecinos hayan recibido una acción formativa que les haga conocer los riesgos en el hogar general, y el de incendio en particular, y qué hacer en caso de emergencia.

e) Documento específico donde se recoja el acuerdo de la Comunidad en donde figure que se ha informado a todos y cada uno de los titulares de las vivienda del inmueble, del incremento de riesgo que supone la reducción del ancho de pasillo y/o escalera, tanto para la evacuación como para la intervención de los equipos de emergencias.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraziko zaio, eta egokiak diren errekurtsoak adieraziko zaizkio.

TERCERA.- Notificar este acuerdo al interesado con indicación de los recursos procedentes.

LAUGARRENA.- Honako hau Ekonomia Arloari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

CUARTA.- Dar traslado del presente al Área económica a los efectos oportunos.

**417.- EMANDAKO OBRA-**

**417.- CONCESIÓN DE LA**

**BAIMENAREN ALDAKETA ESKATUTA, GALEAKO ERREPIDEKO 21EAN DAGOEN ERAIKINEAN ITSASOKO LAGUNTZAKO KOORDINAZIO-ZENTROA EZARTZEKO ONESTEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

I.
LEHENENGOA: Jose Luis Solís Uriaguereca jaunari, ITSASOKO SALBAMENDU ETA SEGURTASUN SOZIETATEAREN ordezkaritzan, eskatu duen aldaketa onartuko zaio, La Galea errepideko 21.ean dagoen eraikinean egin gura dituen obren lizentziarako, "Itsasoko Salbamenduko Koordinazio Zentro" baterako. Obra horiek Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko maiatzaren 17ko batzarrean baimendu zituen, 182. Erabakiaren bidez. Hori guztia, aurkeztutako proiektuarekin bat etorriz, Mikel Escajedo San Epifanio eta Juan Antonio Olmo Prieto arkitektoek idatzia eta EHAEOak 2017ko maiatzaren 17an ikus-onetsia.
- Obren aldaketa gurpildunen eta oinezkoen sarbidea zolatzean datza, lur-zatiaren zati batean.

- Obraren betearazpenean enpresa bat baino gehiagok, enpresa batek eta langile autonomoek edo hainbat langile autonomok egiten badute lan, sustatzaileak lanei ekin aurretik edota inguruabar hori jasota geratzen den unetik bertatik segurtasun eta osasun gaietako koordinatzaile bat izendatuko duela obrak dirauen bitarte osorako.
- Obrak gauzatzen diren bitartean, indarrean dauden segurtasun-neurriak

**MODIFICACIÓN SOLICITADA DE LA LICENCIA DE OBRAS A REALIZAR EN EL EDIFICIO SITO EN LA CRTRA. DE LA GALEA, 21 PARA CENTRO DE COORDINACIÓN DE SALVAMENTO MARÍTIMO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

I.
PRIMERO: Conceder a D. Jose Luis Solís Uriaguereca, en representación de SOCIEDAD DE SALVAMENTO Y SEGURIDAD MARITIMA la modificación solicitada de la licencia de obras a realizar en el edificio situado en la Crtra. de La Galea, nº 21, para "Centro de Coordinación de Salvamento Marítimo, obras que fueron autorizadas por Acuerdo nº 182 adoptado por la Junta de Gobierno local en sesión celebrada el día 17 de mayo de 2016. Todo ello de acuerdo con el proyecto presentado, redactado por los Arquitectos D. Mikel Escajedo San Epifanio y D. Juan Antonio Olmo Prieto, visado por el C.O.A.V.N. con fecha 17 de mayo de 2.017.
- La modificación de las obras consiste en la pavimentación de acceso rodado y pedestre de una parte de la parcela.

- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.
- Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de

hartu beharko dituzte hirugarren pertsonak ez kaltetzeko.

- Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, honako epe hauek ezarriko dira:
- Obrak hasteko HILABETEKO (1) epea izango da, obren lizentzia jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.
- Lanak beranduen HIRU (3) HILABETETAN amaitu behar dira.
- Obrak gehienez HILABETEZ (1) egon daitezke etenda, sustatzaileari bakarrik egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio.

BIGARRENA: Obrak amaitzean, lehen erabilerako lizentzia eskatuko du egindako obra guztietarako eta, horrekin batera, obra amaierako ondorengo dokumentazioa:
- Haien obra amaierako ziurtagiria eta likidazioa, teknikari eskudunak sinatuta, eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita.
- Egindako obren koloretako argazkiak, barnekoak nahiz kanpokoak.

HIRUGARRENA: Erabaki hau nahiz haren aurka jarri daitezkeen errekurtsoak eskatzaileari helaraztea, ondorio egokiak izan ditzan.

Gogorarazten zaie, berritu beharreko eraikinean egin nahi den bulegoko jarduera aipatutako arauaren B) idatz-zatiko II. eranskinean jasota dagoela, otsailaren 27ko 3/98 Lege Autonomiko Orokorraren, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzkoaren, 62 Bis artikuluarekin bat etorriz.

seguridad vigentes, en evitación de daños a terceros.

- Teniendo en cuenta lo establecido en el Art. 215 de la Ley 2/ 2006, de 30 de Junio del Gobierno Vasco, sobre Suelo y Urbanismo, se establecen los siguientes plazos:
-El plazo de inicio de las obras será de UN (1) MES, contado a partir de la recepción de la licencia de obras.
-Se establece un plazo máximo para la ejecución de los trabajos de TRES (3) MESES.
-El periodo máximo que podrá estar interrumpida la ejecución de las obras por causas imputables a su promotor será de UN (1) MES.

SEGUNDO: Al finalizar las obras, solicitará licencia de primera utilización para la totalidad de las obras realizadas, acompañada de la siguiente documentación final de obra:
- Certificado Final de Obras y Liquidación de las mismas, firmados por Técnico competente, y visados por el Colegio Oficial correspondiente,
- Fotografías en color de las obras realizadas, tanto interiores como exteriores.

TERCERO: Dar traslado del presente Acuerdo así como de los recursos que proceden contra el mismo al solicitante, a los efectos oportunos.

Se les recuerda que, de conformidad con el art. 62 Bis de la Ley Autonómica 3/98, de 27 de Febrero, General para la Protección del Medio Ambiente del Pais Vasco, la actividad de oficina que se pretende desarrollar en el edificio a reformar está incluida en el Anexo II, apartado B), de la referida norma.

Beraz, aipatutako jarduera hasi aurretik, "aurretiazko jakinarazpena" aurkeztu beharko dute eta, horrekin batera, erantzukizun deklarazioko dokumentu bat (erantsitako inprimakien arabera) eta teknikari eskudun batek egindako ziurtagiri bat; bertan, jarduera horrek aplikagarriak diren ingurumen nahiz segurtasuneko baldintzak betetzen dituela justifikatuko da.

Por lo tanto, con carácter previo al inicio de la citada actividad deberán presentar una "Comunicación Previa", acompañada de un documento de Declaración de Responsabilidad (según impresos adjuntos) y un Certificado, emitido por técnico competente, en el que se justifique que dicha actividad cumple las condiciones medioambientales y de seguridad que le son de aplicación.

LAUGARRENA: Erabaki hau URAri jakinaraziko zaio, jakin dezan eta ondorioak izan ditzan, lur-zatia "itsasoko eta lehorreko eremuaren" babespeko zortasun eremuan dagoelako.

CUARTO: Dar traslado del presente acuerdo a URA, para su conocimiento y a los efectos oportunos, por encontrarse la parcela en la Zona de Servidumbre de Protección de la "Zona Marítimo Terrestre".

II. Ekonomia Arloak lizentzia honi dagozkion eskubideak igorriko ditu. Aldaketa honetarako aurkeztutako egikaritze materialeko aurrekontua 152.430,51 eurokoa da.

II. Por el Área económica se girarán los derechos correspondientes a la presente licencia. El Presupuesto de Ejecución Material presentado correspondiente a la presente modificación asciende a la cantidad de 152.430,51 €.

**418.- LEHENENGO ERABILERAKO BAIMENA ESKATUTA, BASAGOITI ETORBIDEKO 62KO ERAIKINA OSO-OSOA BIRGAITZEKO EGINDAKO OBRARENTZAT EMATEA.**

**418.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN INTEGRAL DEL INMUEBLE SITO EN AVDA. BASAGOITI, 62.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.-
I. Juan Angel Zalbidea jaunari, BASAGOITI ETORBIDEKO 62.eko jabe erkidegoaren ordezkaritzan, Basagoiti etorbideko 62.eko higiezina erabat birgaitzeko obrak lehen aldiz erabiltzeko lizentzia emango zaio. Obra horiek Tokiko Gobernu Batzarraren

PRIMERO.-
I. Conceder a D. Juan Angel Zalbidea en representación de la CP AVENIDA BASAGOITI 62, licencia de primera utilización para las obras de rehabilitación integral del inmueble sito en Avenida Basagoiti 62, obras autorizadas por Acuerdo nº 426, de la

2014ko azaroaren 18ko 426. Erabakiaren bidez baimendu ziren. Hori guztia aurkeztu den obrako azken dokumentazioaren arabera, Aitor Elordui Linage arkitektoak sinatua eta EHAEOak 2016-02-23an ikus-onetsia.

Junta de Gobierno Local, de fecha 18 de noviembre de 2.014. Todo ello de acuerdo con la documentación final de obra presentada, firmada por el Arquitecto D. Aitor Elordui Linage, visados por el COAVN con fecha 23/02/2016.

II. Berariaz agerrarazten da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2. artikuluan aurreikusitakoa betez, lizentziak jabetza-eskubiderik barik eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango direla.

II. Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak likidazio egokia egingo du, kontuan izanik azken likidazioa 77.643,80 eurokoa dela.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que la liquidación final presentada asciende a 77.643,80 €

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri emango zaio Udaleko Estatistikari, ondorioak izan ditzan.

TERCERO: Dar traslado de la presente resolución a Estadística Municipal, a los efectos oportunos.

**419.- LEHENENGO ERABILERAKO BAIMENA ESKATUTA, MUXIKA AURREKOA KALEKO 10EKO ERAIKINA BIRGAITU ETA HIRU ETXEBIZITZATAN BANANTZEKO EGINDAKO OBRARENTZAT EMATEA.**

**419.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN DEL INMUEBLE SITO EN EL Nº 10 DE LA C/MUXIKE AURREKOA PARA SU TRANSFORMACIÓN EN TRES VIVIENDAS.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.-
I. MARIA ASUN BILBAO FULLAONDO andreari Muxike Aurrekoa 10eko eraikina birgaitzeko obrak lehen ealdiz erabiltzeko lizentzia ematea, eraikina 3 etxebizitza bihurtzeko. Obra horiek Tokiko Gobernu Batzarraren 2016ko

PRIMERO.-
I. Conceder a DÑA. MARIA ASUN BILBAO FULLAONDO, licencia de primera utilización para las obras de rehabilitación del edificio sito en la calle Muxike Aurrekoa, 10, dirigidas a su transformación en 3 viviendas, obras

maiatzaren 24ko 203. Erabakiaren bidez baimendu ziren. Hori guztia aurkeztu den obrako azken dokumentazioaren arabera, Antonio Sanchez Puerta arkitektoak sinatua eta EHAEOak 2017-06-13an ikus-onetsia.

que fueron autorizadas mediante Acuerdo de la Junta de Gobierno Local nº 203, de fecha 24 de mayo de 2016. Todo ello de acuerdo con la documentación final de obra presentada, firmada por el Arquitecto D. Antonio Sanchez Puerta, visada por el COAVN con fecha 13/06/2017.

II. Berariaz agerrarazten da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2. artikuluan aurreikusitakoa betez, lizentziak jabetza-eskubiderik barik eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango direla.

II. Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak likidazio egokia egingo du, kontuan izanik azken likidazioa 296.111,20 eurokoa dela.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que la liquidación final presentada asciende a 296.111,20 €

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri emango zaio Udaleko Estatistikari, ondorioak izan ditzan.

TERCERO: Dar traslado de la presente resolución a Estadística Municipal, a los efectos oportunos.

**420.- OBRA-BAIMENA ESKATUTA, URI ESTRATAKO 22KO ETXEBIZITZA BAKUNA ERAIKITZEKO EMATEA.**

**420.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA CONSTRUCCIÓN DE UNA VIVIENDA UNIFAMILIAR EN LA ESTRADA PARTICULAR DE URI, 22.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.- Hirigintzako Aprobetxamenduen Transferentzien erregistroan 50.822,49 euro sartuko dira, 39,87 m2ko aprobetxamendu unitateari dagozkionak (kopuru horretan gainditzen baitu planeamenduak onartutako aprobetxamendu errealak jabetu

PRIMERO.- Incorporar en el Registro de Transferencias de Aprovechamientos Urbanísticos la cantidad de 50.822,49 euros, correspondientes a los 39,87 m² U.A. en que excede el aprovechamiento real permitido por el planeamiento sobre el susceptible de apropiación, en relación

daitekeen aprobetxamendua), ENRIQUE PASCUAL ANCHIA jaunak Uriko estrata partikularraren 22.eko lur-zatian (43-"Andra Mari hirigunea" banaketa-aldea) egin nahi duen eraikuntza-jarduketa dela-eta, familia bateko etxebizitza eraikitzeko bideratua.

BIGARRENA:

I.- ENRIQUE PASCUAL ANCHIA jaunari eskatutako obra lizentzia ematea, Uriko estrata partikularraren 22.ean, 2016ko apirilean aurkeztutako oinarrizko proiektuaren arabera (sarrera erregistroan 10513 zenbakiduna, 2016-04-22koa), FORASTER ARQUITECTOS, S.L.P.k idatzia. Baldintza hauek bete beharko ditu:

60 egun naturaleko epean, lizentzia eman zaiolako jakinarazpena jasotzen duenetik eta, betiere, obrak hasi aurretik, dokumentazio hau aurkeztu behar du:

- egikaritze-proiektua
- Kalitate-kontroleko programa.
- segurtasun- eta osasun-azterlana
- Urbanizazio eranskina, fatxaden aurrean, lur-zatiaren itxieretan eta espazio publikoetan (edo obrak amaitzean espazio publiko izango direnetan) egingo diren urbanizazio obrak eta instalazioak jasotzen eta zehazten dituena, Ur, Saneamendu, Bide, Argi Publiko eta Lorezaintza zerbitzuetan eragina dutenak (horietatik, daudenak), kontuan izanik HAPOan definitutakoa, 2016-02-29ko txostena (aipatutako lur-zatian nahitaezko lagapenen ondoren egin behar diren urbanizazio obren informazio xehea eskatzen zuena), eta ondoko atal hauetan jasotakoa.

con la actuación edificatoria pretendida por D. ENRIQUE PASCUAL ANCHIA, en la parcela situada en la Estrada Particular de Uri nº 22, Área de Reparto nº 43, denominada "Santa Maria Urbano", dirigida a la construcción de una vivienda unifamiliar.

SEGUNDO:

